



# PRAKTIKASTIKA 2022/2023 DEIALDIAREN OINARRIAK

Praktika artistikoak plastikan  
Praktika artistikoak eskolan  
Praktika artistikoen bidezko ikasketan

Arte garaikidea plastikan  
Arte garaikidea praktikan

Praktikaren plastika  
Plastikaren praktika  
Praktikaren elastika  
Plastikaren ikasketa

Ikasketaren plastika  
Ikasketaren praktika  
Ikaspraktika elastikoa

Praktikaren ikastika...  
PRAKTIKASTIKA

## \_Sarrera

Tabakalerako hezkuntza arloak proposatzen dituen deialdiek ibilbide luzeko harreman eta prozesuak sortu nahi dituzte, hezkuntza-komunitatearekin norabide biko ikaskuntzara irekita dauden lankidetzak ahalbidetzeko. Ikasturtean zehar luzatzen dira, eta eragileen arteko harremana sendotzeko, lankidetzan bide berriak jorratzeko eta elkarrekin hausnartzeko espazioak sortzeko aukera ematen dute. Kultura garaikidea eta jardun artistikoak hausnarketa horretarako eta ikaskuntza-prozesu kolektiboak garatzeko tresnak dira.



Era berean, jardutetik hausnarketara eta egitetik pentsatzera jauzia egitea aldarrikatzen dugu, lanaren filosofia gisa. Ez ditugu bi eremuak banandu nahi, elkarren artean elikatzen baitira.

## Zer da PRAKTIKASTIKA?

PRAKTIKASTIKA lankidetzaren proposamen bat da, Tabakalerako Hezkuntza Sailak eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batek eskola-eremuan artea beste modu batzuetara jorratzeko aukera emango duen epe luzeko proiektu bat egin dezaten.

Lankidetzako-lan horren helburua da sorkuntza-artistiko proiektu bat garatzea ikasturtean zehar, *Plastikako, Ikusizko eta Ikus-Entzunezko Hezkuntza* irakasgaiaren barruan. Ikaskuntza-prozesu horretan, Tabakalerako lan-espazioekin eta 2deko Tabakalerako euskarazko ikus-entzunezkoen laborategiko espazioekin lotura duten sortzaile gazteen laguntza izango dugu.

Hortaz, hautatutako ikastetxearen eta Tabakalerako Hezkuntza Sailaren eta 2deoren arteko ikaskuntza-prozesu esperimentalak da. Prozesu honek irakasgai horren garapena, edukiak eta egiteko moduak elkarrekin birpentsatzea proposatzen du, ikasturte osoan zehar.

### \_ Lehenengo proiektu pilotua (2022-23)

Lehenengo edizio honetan, **sorkuntza digitalari buruzko proiektu pilotu bat** egingo da. Gure ustez, ikasleak, hau da gazteak, ikus-entzunezko eduki digitalen kontsumitzaileak izateaz gain, eduki-mota hauen sortzaileak ere badira. Hori dela eta, ikasturtean zehar sorkuntza-prozesu horietan zentzu kritiko eta sortzailea jorratzea proposatzen dugu. Ikasleen errealitateak eta interesak curriculumeko edukiekin lotzea, *Plastikako, Ikusizko eta Ikus-Entzunezko Hezkuntza* irakasgaia ikasle zein irakasleentzat egungo tresna, kontzientea eta erabilgarria izan dadin.



Praktikan, ikasleak buru izango dituen podcast bat egingo dute, eta, horretarako, Tabakalerako Hezkuntza Saileko hezitzaileen eta 2deoko espazioari lotutako artisten laguntza izango dute.

### **Zertarako? Zein da helburua?**

Deialdia horren sorburua honako hau da: jardun artistiko garaikideak hezkuntza-estrategia gisa sartzeko beharra, baliabide berriak eskaintzekoa *Plastikako, Ikusizko eta Ikus-Entzunezko Hezkuntzako* irakasleei, eta, aldi berean, ikasleen imajinariotik eta sorkuntza-ingurunetik abiatzekoa.

PRAKTIKASTIKAr en erronka nagusia da gazteen errealitateari aurre egitea, beren interesetatik abiatuta, ikaskuntzaren eta arte-kreazioaren prozesu baten bidez. Era berean, *Plastikako, Ikusizko eta Ikus-Entzunezko Hezkuntza* irakasgaiaren eskola-curriculumeko edukiak astindu eta horiek jorratzeko beste modu batzuk bilatu nahi ditu.

### **Norentzat da?**

Donostialdeako Bigarren Hezkuntzako edozein ikastetxetako *Plastikako, Ikusizko eta Ikus-Entzunezko Hezkuntza* irakasgai\* ikasle eta irakasleentzat da.

(\*beste irakasgai bateko irakasleak izanik deialdi honetan parte hartu nahi izanez gero, jarri gurekin harremanetan eta adierazi zein den zure kasua).

### **Noiz egingo da?**

Proiektua 2022-2023 ikasturtean egingo da. 2022ko Irailean hasi eta 2023ko ekainean amaituko da. Proiektua egiteko ordutegia eta egutegia parte hartzen duen ikastetxeko *Plastikako, Ikusizko eta Ikus-Entzunezko Hezkuntza* irakasgaiaren ordutegi eta egutegi bera izango da.

**TABAKALERA**



**Nola har dezakezue parte?**

Parte hartzeko, mezu elektronikoa bidali behar duzue ekainaren 17a baino lehen honako helbide honetara:

[hezkuntza@tabakalera.eus](mailto:hezkuntza@tabakalera.eus). Mezu horretan, ikastetxearen aurkezpen labur bat eta deialdian zergatik parte hartu nahi duzuen azaldu beharko duzue (gehienez 500 hitz).

Ondoren, elkarrizketa pertsonal labur bat egingo dugu interesa duten pertsona/talde bakoitzarekin, eta **uztailaren 4ko** astean jakinaraziko dugu zein ikastetxe hautatu dugun.

Ikastetxe parte-hartzailea hautatzeko, honako alderdi hauek hartuko dira aintzat: elkarrekin lanean aritzeko eta jardun artistikoen berezko metodologiak esperimentatzeko prestasuna, eta ikastetxeak proposamena behar bezala garatzeko beharrezkoak diren denbora eta espazioak eskaintzeko duen gaitasuna.

**Harremanetarako:**

[hezkuntza@tabakalera.eus](mailto:hezkuntza@tabakalera.eus)